

Otsailekoa



# Otsailekoa

**irudiak:**

IRRIMARRA ilustrazioa

**ipuina:**

Yolanda Arrieta



**BOOKTEGI**

*Guztion liburua, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

Gauza txiki-txiki bat ikusi nuen leihoz bestaldean.

—Zer ote da? —galdetu nion neure buruari.


Igande gaua zen eta oso nekatuta nengoen.  
Pertsiana jaitsi eta lotara joan nintzen.

Biharamun goizean, astelehena. Pertsiana gotzean,  
zer ikusiko? Beldar txiki-txiki bat!

Beldar txikiak ahots txikiz esan zidan:

—Gose naiz...

Pipa-hazi bat eman nion. Asko poztu zen.





Hurrengo goizean, asteartea. Pertsiana igotzean, beldarra  
han, zain.

Handiagoa zela ohartu nintzen.

Beldarrak ozenago hitz egin zidan:

—Gose naiz.

Bi gominola eman nizkion. Jaten geratu zen.



Hurrengo goizean, asteazkena.  
Pertsiana igo eta beldarra han, adi.  
Hazi egin zela iruditu zitzaidan.

Beldarrak argi adierazi zidan:

—Gose naiz!

Hiru txokolate-ontza eman nizkion.  
Gustura hartu zituen.





Hurrengo goizean, osteguna. Pertsiana igo eta beldarra  
han, erne. Loditu egin zela ohartu nintzen.

Beldarrak ahots lodiz aditzera eman zidan:

—Gose naiz!!

Lau kroketa eman nizkion. Grauska-grauska murtxikatu  
zituen.





Hurrengo goizean, ostirala. Pertsiana  
igo eta beldarra han, handi-handi.

Baldar mintzatu zitzaidan:

—Gose naiz!!!

Bost madalena bota nizkion. Mokadu  
bakarrean irentsi zituen.



Hurrengo goizean, larunbata.  
Pertsiana igotzean, buru handi  
bat, nire aurrean, aho zabalik,  
eske:

—Gose naiz!!!!

Txorixo bat jaurtiki nion;  
urdaiaspiko osoa, zazpi pisuko  
tarta, zortzi arrautzako  
patata-tortilla, meloia eta sandia.  
Deeeenak irentsi zituen, grausk!





Hurrengo goizean, igandea. Ez nintzen ausartu pertsiana igotzen. Handik gutxira:

—Kax-kax! —entzun nuen, bestaldean.

—Nor da? —galdetu nuen, tentuz.

—Ni —erantzun zidan beldarrak, ahots erraldoiaz.

—Ezin dizut ezer gehiago eman —erantzun nion—. Hozkailua hustu didazu.

—Ez naiz gose —aditzera eman zidan.

—Ez? —galdetu nion, harrituta—. Zer duzu, orduan?

—Asper-asper eginda nago, mugitu ezinik, geldi.

Zerbait aldatu zela ohartu nintzen; ez zela betiko beldarra.


—Eta zer nahi duzu nik egitea? —galdetu nion, jakin-min.

Beldarrak arnasa hartu eta zera erantzun zidan, apal:

—Hegan egiteko jantzi bat...

Pertsiana igotzean, hara! Tximeleta  
koloretsu bat pausatu zitzaidan  
esku gainean!

—Jantzi mozorroa eta zatoz nirekin  
—esan zidan tximeletak,  
poz-pozik—: inauteriak heldu dira!







**BOOKTEGI**

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eu](http://booktegi.eu)